

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. ELGAK BERAK POLITIKA NEOLIBERALAK KRITIKATZEN DITU (GUTXI BADA ERE)
2. BIZITOKIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOAK OSASUN-ARRISKUA BALDINTZATZEN DU
3. EAEN 86.000 ETXE HUTSIK DAUDE, 36.000K INOLAKO ERABILPENIK EZ DUTELARIK
4. GUTXIENGO SOLDATA BERRIA BAXUEGIA DA ETA MURRIZKETAK ETA ZERGA IGOERAK IZKUTATZEN DITU
5. EUROPARAKO B PLANA ZEHAZTEKO AURRERAPAUSSOA
6. PROPOSAMENA: ABENDUAK 16, AURREKONTU SOZIALEN, PARTE-HARTZAILEEN ETA BURUJABEEN ALDE, DENOK LABRITERA



**1- ELGAK BERAK POLITIKA NEOLIBERALAK KRITIKATZEN DITU (GUTXI BADA ERE)**

ELGAK egindako txosten interesgarri bat argitaratu berri da. Gobernuarteko ideologia neoliberalak duen erakunde hau bere garaian Marshall Plana bideratzeko zegoenaren ordezkoa da. Gaur egun bere partaide dira EB-28 (Malta, Txipre, Lituania, Bulgaria eta Errumania ezik), Norvegia, Suitza, Turkia, Israel, AEB, Kanada, Txile, Mexiko, Australia, Zelanda Berria, Japon eta Hego Korea; horregatik, antzekotasun handia du AEBen aliantza militarren sarearekin eta baita NATOrekin ere.

Txostena diru-sarreraren ezberdintasunez buruzkoa da eta deigarria da oso kapitalismoaren eta egungo fase neoliberalaren alde ezkutuenaz aztertzen duelako: munduko estatu aberastuenetan (gehienak ELGAkoak) ematen ari den pobrezia eta ezberdintasunen hazkundera.

Txostenaren arabera, azken zazpi urteotan diru-sarreraren ezberdintasunak maila historikoetan daude eta handitzeko joera jarraituz. Ekonomiaren gorakada eta enpleguaren hazkundera egon arren ELGAko estatuak, soldadak berdinduz geratu dira eta murriztu Grezian, Estatu espainiarrean edo Erresuma Batuan, besteak beste.

2012an Estatu espainiarrean egin zen lan erreformak enplegua sortu zuela dio txostenak (zalantzakoa den baieztapena); baina erreforma ez zela gai izan iraunkorra den epe luzeko langabezia murriztu ezta soldaten jaitsiera eteteko, batez ere soldata baxuenak jasotzen diren enpleguetan eman den jaitsiera.

Horrela, gaur egun ELGAko estatuak pobrezia populazioaren %11,5 kolpatzen du eta baita enplegua duten langileen %8,3 ere.

Gainera, baliabide gehien duen biztanleriaren %10aren aberastasuna gutxien duen %10arena baino 8,5 aldiz handiagoa da. Pobrezia bilakaera 2007 eta 2014 urteen artean negargarria izan da hainbat lurraldetan, Grezia (%13,5 egin du okerrera) edo Estatu espainiarreko (%12 okertuz) kasuetan, besteak beste.

Aberastasunaren birbanaketan eman den bilakaera aztertzeko era hoberena Gini koefizientearen bidez egitea da: 2007 eta 2014 artean %6,8 egin du okerrera Estatu espainiarrean, %3,9 Grezian edo %5,3 AEBn. ELGA osotasunean hartuta, bilakaera ez da hain txarra izan (%0,3 egin du behera) estatu batzuetan eman den bilakaera hobearengatik: adibidez, Islandian %15,6 hobetu da, Txilen %3,1, Hego Korean %3,2 eta Belgikan %4,3.

Hori guztia ELGAko estatu gehienetan aplikatzen ari diren politika neoliberalen ondorioa da. Izatez, txostenak berak zehazten du 2007-2014 epealdian langileen eta biztanleriaren diru-sarreraren murrizketa bat eman dela.

Urrutiko herrialdeetan ematen den egoera hori Euskal Herrian ere ematen da, ELGAK bere txostenean era apalean salatzen dituen politika neoliberalak hemen ere aplikatzen baitira.

Txostenaren analisisa eta emaitzak ikusita, ELGA eta osatzen duten estatuak gobernuek aplikatzen dituzten politikak aldatu behar dituztela ukazina da. Hala eta guztiz ere, ez dirudi horrelakorik geratu ko denik.


**2- BIZITOKIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA OSASUN-ARRISKUA BALDINTZATZEN DUEN FAKTOREA DA**

Imanol Montoyak egindako doktoretza tesiak EAEn dauden gizarte ezberdintasunak azaleratzen ditu hilkortasunari dagokionez. Gainera, ezberdintasun horiek esanguratsuak direla zehazten du, beste lurralde batzuetan gertatzen den bezala.

Horretaz gain, EAEko Osasun Sailak egindako ikerketek biztanleriaren eritasun mentalak era nabarian areagotu direla zehazten dute.

Azkenik, tesiak, aplikatzen diren politikak aztertzen ditu. Eta ondorioak ez dira bat ere onak: efikazia baxua dutela dio. Gainera, gizarteko sektore ezberdinekin batera gizarte eta inguruko baldintzatzaileetan eragiteko beharra zehazten du.

Bizi itxaropen ezberdintasuna jaiotzean EAEko oinarriko osasun guneetan 2001-2005



Horrek esan nahi du gizarte ezberdintasunak ez dutela soilik pertsonen bizitza egoera baldintzatzen, hiltzeko era eta adina ere baldintzatzen baitute. Hortaz, egoera sozioekonomiko makalagoa dagoen lekuetan hilkortasun maila handiagoa ematen da.

Adibide gisa, irudiak bizi itxaropenean ematen diren ezberdintasunak islatzen ditu: Algotan bizi den pertsona batek Bilbao Zaharrean bizi den batek baino bizitza esperantza altuagoa baitu, 4,3 urte gehiago emakumeen kasuan eta 8,3 urte gehiago gizonenean. Honek bizilekuan dagoen errealitate sozioekonomikoak bizi-baldintzetan zenbat eragiten duen erakusten du.

Lanak 2008 baino lehenagoko urteak aztertzen ditu, 2008an azken hamarkadetako krisi kapitalista larrienetakoa hasi zelarik. Hori dela eta, tesiaren egileak beste ikerlari batzuek aztertutakoa aipatzen du eta zehazten duenez aplikatzen diren austeritate politikak gizarte ezberdintasunak handitu dituzte krisia berak baino gehiago.

ELak nabarmendu nahi du tesi honek agerian uzten duela gobernatzen dutenen autokonplazentzia gizarte politikak eta euskal osasun sistema goraiatzeko dutenean. Austeritate politikak ezartzen direnean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egiten duten bezala europako eta osasunera bideraturiko baliabideetan azken postuetan kokatuz, gizarte ezberdintasunak hazi eta azaleratzen dira, tesiak erakusten duen bezala.

Zentzu horretan, 2008ko krisiak buruaz beste egiten duten pertsonen kopuruaren hazkundera eragin du Estatu espainiarrean, batez ere lan adinean dauden gizonen artean.

**3- EAEN 86.000 ETXE HUTSIK DAUDE, 36.000K INOLAKO ERABILPENIK EZ DUTELARIK**

EAEn etxe huts bezala hartzen dira lehen etxebizitza ez direnak. Hutsik daudenak bi eratan sailkatzen dira: denboraldikoak/bigarrenak, urtean zehar erabiltzen direnean baina inoren ohiko etxebizitza ez direnean; eta hutsak/okupatu gabeak, inor bizi ez denean baina egoera onean daudenean.

EAEko Etxebizitza Behatokiak zehazten duenez, erkidegoan 86.325 etxe huts daude: guztira daudenen %8,3. Horrek esan nahi du hamabi etxetik bat hutsik dagoela EAEn, gizartearen beharrak handiak diren kontestu batean eta kaleratze ugari ematen diren bitartean.

Lurralde historikoka, Arabako etxeen %11 hutsik dago, Gipuzkoan %8,9 eta Bizkaian %7,1. Informazioa ematen duen Etxebizitza Behatokia Eusko Jaurlaritzaren menpekoa den erakunde bat delarik.

Horrez gain, Behatokiak 35.647 etxe huts zenbatu ditu ez direnak bigarren etxebizitza, denboraldikoa edo samentan edo alokairuan eskeintzen direnak. Beraz etxebizitza guztien %3,5ak ez du inolako erabilerarik eta ez dago salgai edo alokairu eskeintzan ere.

Beste era batera ikusirik, 35.647 etxebizitza kudeagarriak dira EAEn merkatuan eskeintzeko, baldintzak betetzen baitira horretarako. Borondate politiko gabeziak ezintzen du hori.

ELAren aburuz, errealitate hau kontuan hartzea ezinbestekoa da etxe hutsei buruzko politikak egiterako orduan, etxe berrien eraikuntza sustatu ordez.

**4- GUTXIENGO SOLDATA BERRIA BAXUEGIA DA ETA MURRIZKETAK ETA ZERGA IGOERAK IZKUTATZEN DITU**

2017ko gutxiengo soldata berria, %8 handiagoa, murriztegia izango da eta langile guztiei ez aplikatzeko aukera du Gobernuak. Gainera, iragarpen honek gastu publikoaren murrizketak eta zeharkako zergen igoerak izkutatzen ditu.

Gutxiengo soldataren igoera azken urteetan eman den eros-ahalmenaren murrizketaren ondoren dator. Igoerarekin, gutxiengo soldata berria 825,55 eurotako izango da 12 ordainalditan (707,60 euro 14 alditan), inguruko herrialdeetan daukatena oso urruti: besteak beste Estatu frantziarra (1.457,52 euro), Alemania (1.440 euro), Belgika (1.501,82 euro)... Honek esan nahi du gutxiengo soldata jasotzen dutenentzat ez dela nahikoa izango dituzten beharrak asetzeko. Are gehiago, gutxiengo soldata berriaren igoera pertsona eta alor guztietan ez aplikatzeko aukera egongo da; Gobernuak aurrerago erabakiko baitu benetan izango duen eragina.

Hego Euskal Herrian gabezia nabariagoekin, gutxiengo soldata berria ez da gai izango jasotzen dutenak jada badauden pobrezia egoeratik ateratzeko. Horrez gain, biztanle bakoitzeko batezbesteko aberastasunaren %50etik eta batezbesteko soldataren %60tik oso urrun egoten jarraituko du.

Eta are larriagoa dena, neurri hau gastu publikoaren murrizketa bortitz batekin (5.000 milioi eurokoa) eta zergen igoera batekin (7.000 milioi euro gehiago biltzea espero da, gehienak zeharkako zergak ezarriz tabakoari, alkoholari...) batera dator. Hortaz, ogasunek diru gehiago bilduko dute baina gutxiago bideratuko dute gizartearen beharrak asetzera.

Zehazki, administrazio guztien gastu publikoa murrizteko aurrikuspena egin da, 2017an aurrekontu defizit txikiagoa (heren batean) lortzeko asmoz: %50 baxuagoa estatuko administrazioan, %14,3 erkidegoetan eta %17,6 Gizarte Asegurantzian.

Defizita are zorrotzagoa izango da ondorengo urteetan, 2016 eta 2019 urteen artean defizita izateko aukera asko txikituko baita: izatez, hutsa izango da erkidegoetan, jada udaletan geratzen den bezala; estatuko administrazioan 7,3 aldiz murriztuko da %0,3ra iritsiz eta Gizarte Asegurantzian %59 murriztuko da.

Defizit helburuaren erabakia Estatu espainiarreko Ministro Kontseiluak hartu badu ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren babes osoa du helburua betetzeko.

Diru-sarrerak 7.000 milioi eurotan handitzeko neurri ezberdinak ezarriko dira: sozietate zergan dauden salbuespenak murriztu (4.650 milioi euro bilduko direla espero da honekin), tabakoaren eta alkoholaren zergak handitu (100 eta 50 milioi euro, hurrenez hurren), zerga berriak sortu azukrea duten edarientzako (zehaztu gabe) eta zerga-iruzurra gehiago borrokatu.

Deigarria da EAEko eta Nafarroako gobernuek defizita beteko dutela iragarri izana, baina ez dituztela estatuaren neurriak imitatuko diru-sarrerak hobetzeko zerga-iruzurra gehiago borrokatuz eta sozietateen zergan dauden salbuespenak txikituz. Horrela, Hego Euskal Herrian gastu publikoaren murrizketa bortitzagoak emango dira, estatu mailan egongo diren diru-sarreraren hazkunderik ez baita emango baina defizitaren helburua beteko baita.

Horregatik guztiagatik, ELAk 1.200 euroko gutxiengo soldata ezartzea eskatzen du eta

baita politika neoliberalak ukatzea ere, hala nola gastu publikoaren murrizketak desegitea edota klase kapitalista ez salbuestea biztanleriak ordaindu behar dituen zergen igoerak aplikatzen diren bitartean.

#### **5- EUROPARAKO B PLANA ZEHAZTEKO AURRERAPASOA**

Joan den azaroaren 19 eta 20an Kopenhagen Europarako B Planari buruzko konferentzia izan zen; sindikatu, talde politiko, gizarte-mugimendu eta akademiako 200 lagunek parte hartu zuten, baita ELAk ere. Bilera haren emaitza manifestu bat izan zen. Hauek dira agiriaren puntu nagusiak:

- Europarako B Plan iraunkor bat egingo dugula hitz ematen dugu, europar erakundeekiko oposizio indar eta alternatiba gisa.
- Etenik ez duen austeritatean, gizarte- eta lan-eskubideen aurkako erasoetan eta lanaren debaluazioan oinarritutako Europa arbuiatzen dugu.
- Gure kontinentean gertatzen ari den finantza-egonkortasunaren gainbehera deitoratzen dugu.
- Ez gaude ados arlo publikotik pribaturako joerarekin; honek baliabide komunak eta finantza publikoak bankuen zerbitzu-zorrera bideratzen ditu.

2015ean Grezian gertatu zenak agerian utzi du plataforma berezi bat behar dela Batasun Ekonomiko eta Monetarioaren bidez gauzatzen den xantaiari eta politika neoliberalak ezartzeko saioari aurre egiteko. Premiazkoa da alternatiba bat, batasun hori are arriskutsuagoa bilakatuko baita datozen urteetan. Hain zuzen, gero eta garrantzitsuagoa da euroarentzako alternatiba plazaratzea.

2016ko otsailean Madrilén izan ziren jardunaldien ostena, Kopenhagekoa aurrerapauso argia da egungo europar eraikuntza prozesuarentzako alternatiba osatzeko. Kontzientzia hedatu da egungo itunak bortxaz baliatzen direla politika austerizidak inposatzeko, eta ondorioz, politikak aldarazteko ezinbestekoa dela itun horietako aginduak ez obeditzea. Hau da, ez da sinesgarria politika horiek zeharo aldatukod ituzten akordiorik iristeko aukera dagoenik. Eurotaldean Yanis Varoufakisi esan zioten legez, artean Greziako finantza ministroa zelarik, “arrazoia duzu, baina guk esandakoa egingo duzu”. Beraz, benetako proiektu alternatiborik ez badago orain arteko moduan jarraituko dugu, eta horrek ondorio sozial oso larriak ditu.

Datozen hiletan beste urrats batzuk egingo dira B plana taxutzeko. Oraindik ere badira desadostasunak prozesuko partaideon artean. Baina Kopenhagen irtenbide sinesgarri eta asmo handikoak arukeztu ziren egungo erronkei aurre egiteko, toakian tokiko zein mundu mailan.

Europar alternatiba erradikalen garaia iritsi da (hainbat gaitan: giza eskubideak, eskubide sozial eta laboralak, klima aldaketa, demokrazia, parte hartzea...). Alternatiba hauek botere ekonomiko, finantzario eta mediatikoekin talka dakarte. Bide horretatik aurrera egiteko pedagogia beharrezkoa da, etengabe, kontsentsuaren ideia alde batera utzita. Izan ere, adostasunak bere horretan jarraitzeko besterik ez du balio.

## **6- PROPOSAMENA: ABENDUAK 16, AURREKONTU SOZIALEN, PARTE-HARTZAILEEN ETA BURUJABEEN ALDE, DENOK LABRITERA**

Abenduak 16an izango da Nafarroako mobilizaziorik handiena Gobernu aldaketa izan zenetik. Aldaketa soziala eta aurrekontu politiken aldaketa exijitzeko ekitaldi eta manifestazioa egingo da. Parlamentu Sozialean eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan parte hartzen dugun sindikatu eta eragileek bultzatuta.

2015eko martxoak 14an, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bultzatuta, 55 eragile sozialek eta sindikatuk “koloreen martxa” antolatu genuen aldaketa soziala bultzatzeko Nafarroan hamarkadetan zehar ezarritako politika neoliberalen aurrean. Beharrezkoa ikusten genuen ondorengo ardatzetan oinarritutako programa soziala martxan jartzea: aberastasunaren banaketa; kalitatezko enpleguaren sorrera; bizitzaren jasangarritasuna; askatasunarekin eta eskubide kulturalekin konpromisoa; gizartearen parte-hartzea eta erabakitzeo eskubidea.

Beste alde batetik, Parlamentu Sozialak, non aipatutako hainbat eragile sozialek eta sindikatuk parte-hartzen dugun, aurrekontuen, fiskalitatearen eta zorraren ikuskaritzaren inguruan lan ideologiko itzela egin du. Era batera edo bestera, jende ezberdina lanean ari gara ideia baten atzean: politika publikoetan eragiteko gizartea aktibatzea beharrezkoa da.

2015eko maiatzean emandako aldaketa instituzionalaren ondoren, Nafarroan ezartzen ziren politika publikoen goitik beherako aldaketa exijitzen jarraitu dugu. Eta aurrekontuak dira politika publikoak aldatzeko tresna nagusia. Beste alde batetik, baita ere,

aurrekontuen eztabaida aldaketa sozialaren alde lan egiten dugun eragile guztion afera da.

Nafarroako Gobernua aldatu zenetik bigarren aurrekontuak onartzekotan dira. Eragile sozialek eta sindikatuak exijitzen dugun aldaketa sozialaren bidetik ez dutela aurrera egiten uste dugu. Aurrekontu hauek egiten ari diren moduarekin eta edukiarekin kritikoak gara.

Horregatik, abenduak 16an Iruñeko Labrit pilotalekuan, goizeko 10:00etatik aurrera ekitaldia eta manifestazioa antolatu dugu. Behar dugun aldaketa sozialaren bidetik aurrera egingo duten aurrekontuak exijitzeko Nafarroako Gobernuari eta hau sostengatzen duten partidu politikoei.